



ZIRABA: anfibioak eta narrastiak oinarri dituen jakintza alor anitzeko egitasmoa



Ion Garin-Barrio, Egoitz Alkorta & Iñaki Sanz-Azkue

Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia saila. Zorroagaina, 11. Donostia- San Sebastián (igarin@aranzadi.eus)

ZER DELA ETA SORTU ZEN EGITASMOA?

Anfibioak eta narrastiak mundu mailan mehatxu egoera larriena duten bi ornodun taldeak dira. Europa iparraldeko zenbait herrialderekin alderatuz (batik bat Erresuma Batua edota herrialde baltiko zein eskandinaviarrekin) Europa hegoaldean eta bereziki iberiar penintsulan apenas topa litezke bi ornodun talde hauen inguruko erregistro historikoak. Ondorioz, nekez ezagutu liteke bertako espezieen urteetako bilakaera nolakoa izan den. Erregistroen falta honen muinean arrazoi nagusi bat dago: herpetoak gizartearen gutxiespen maila handiena duten ornodun taldea direla, eta hortaz gizarte mailan ezezagunenak.

Apo, arrabio, suge edota sugegorria bezalako zenbait espezieek izan duten eta oraindik daukaten fama txarrak, kalte egin die zuzenean. Gizakiak animalia hauekiko izan duen beldur eta gorrotoak, hauenganako jazarpen zuzen bat eragin du. Honela, animalia hauekiko dauden sineskera faltsuak arindu, eta herritarren artean informazio egokia zabaltzeko asmoz, 2013. urte amaieran ZIRABA proiektua martxan jarri zen. Anfibio eta narrastiak ardatz dituen jakintza alor anitzeko egitasmo moduan sortutako ideien baitan 20 ekintzatik gora gauzatu dira 2 urteren buruan. Egitasmoan 5-95 urte arteko jendeak parte hartu du, guztira 1.000 pertsonatik gora: ikerketa lanak gauzatu dira, habitataren berreskurapenerako kudeaketa ekintzak, eta maila lokalean hezkuntza landu da Txirrita Ikastetxeko ikasleekin.



Inbentario herpetologikoa



Elkarrizketak adineko jendeari



Irteera alor anitzak



KUDEAKETA EKINTZAK

IKERKETA LANAK

ANFIBIO ETA NARRASTIEN KONTSERBAZIOA

DIBULGAZIO EKINTZAK

ETA HEZKUNTZA MAILAN ZER?



Proiektuko informazioa zabalduta, paperezko argitalpenen bidez zein euskarri digitalak erabiliz.



Habitataren kudeaketa, ekisaintza akordio eta ingurumen boluntarioritza sustatuz.



Ekintzak ez dira soilik ikasle helduenetara mugatu, haur hezkuntzako umeei ere anfibioren gaia landu dute. Horretarako irakasgai ezberdinak erabili dira, hurrengo argazkietan ikus daitekeen moduan.

HEZKUNTZA ALORREAN ZER EGIN DA?

Gipuzkoako Eskola Txikien barruan dago Txirrita Ikastetxea, lehen hezkuntzako eskola honetara gehienbat Ereñotzu auzoko ume-gazteak joaten dira HH eta LH zikloak egitera.



Ikastetxearen ezaugarriek bat egiten zuten lau hilabetez anfibioak ardatz zituen "Unitate Didaktiko" bat lantzeko. Hau dela eta, pilotu frogarri moduan burutu zen proiektua. Ikasle talde txikiak dituen eskola izatea, adin desberdinetako haurrak gela berean edukitzea, eta batik batik eskolatik gertu natur balio aberatseko ingurune naturala izatea oso lagungarri suertatu zitzaizun. Era berean, ikastetxean irakasle-guraso arteko erlazioa oso estua zenez, hainbat ekintza parte hartzaileetan oso emaitza arrakastatsuak lortu ziren. Jarraian lau hilabete luze eta bizi horietan (2014ko urtarriletik maiatzera) gauzatu ziren ekintzak aditzera emateaz gain, kasu batzuetan lortutako ekarpen eta emaitzak azalduko dira:

Adinez aurrera doazen herritarrek elkarrizketatu zituzten umeei, anfibio eta narrastiei buruzko mito eta usteak bildu eta inguruan bizi ziren herpetoen euskarazko izenak jasoz. Ikerlariak ere gauza bera egin zuten: Hernanin guztira 17 herpeto espezie daude eta izendatzeko gutxienez 21 izen erabiltzen ziren eta dira. Beraz ikerketa etnolinguistikoa bat egin da, kasu honetan galzorian dauden espezie-izenak bildu eta balioan jarri. Ikasleek naturaz gain euskara ere landu dute, horrez gain adituen laguntzaz uste eta sinismen faltsuak ezbaian jartzen ikasi dute, erantzun/ondorioak arrazoituz.

Egun batzutan zehar zientzialari papera bete behar izan zuten ikasle helduenek. Irakasleekin aurrez egindako bilerak baliatu ziren, ikasleek ahuleziak agerian utzi eta irteera/laginketa bidez zeharka gai horiek lantzeko ikasgelatik at. Horrez gain naturarekin harremanetan natur zientzien ikasgai bere biziko garrantzia duten zenbait kontzeptu landu ziren: sare trofiko konplexua, ur-sistema lentiko eta lotikoak (uraren zikloa barne zutelarik), bai eta bioaniztasunaren galeran eta modu nabarian anfibioren gainbeheran errudun diren hainbat mehatxu ezagutzera eman ziren: aldaketa klimatikoa, espezie arrotz inbaditzaileen sartzapena edota gaixotasun emergenteak.





Laginketetan topatu dituzten espezieetako bi; apo arrunt iberiarra eta suge biperakara.



Ikasleek Aranzadi Zientzia Elkarteko herpetologia saileko kideak gauzatzen ari diren inbentario herpetologikoa aberastu dute; ikas garaian antolatutako diren irteeretan bildutako datuak pasa egin dizkigute eta, informazio guzti hau duela urte erdi eskas Aranzadik hainbat erakunderen laguntzaz sortutako Ornitho.eus atarian eskegiko dira, laginketetan Aranzadiko kideek jasotako 800 aipuekin batera.

Saiakerak oso balorazio positiboa jaso du irakasle eta gurasoen aldetik, eta etorkizuneko proiektuetarako hobekuntzak ere aztertu dira. Ideia ez da ekimena saiakera soil batean uztea, jardunaldi honen gisako elkarretaratzeak probestu nahi ditugu adituen laguntzaz Hezkuntza sisteman ezarri litekeen Unitate Didaktiko malgu bat sortzeko. Saiakera gutxienez beste bi udalerritan errepikatu nahi dugu 2015-16 ikasturte amaieran. Ordurako ikasgai neurgailuak ezartzen ahaleginduko gara, soilik honela jakin ahal izango baitugu ikasleei begira proposatutako helburuak bete diren edo ez.

SUSTATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK